

2016-2020 GIZARATERATZEKO PLANA



elkar-EKIN

Gipuzkoako Gizarteratzea
Inclusión Social Gipuzkoa

*...Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan
ezin gelditu, jakintza eta argia...*

(Xabier Lete)



elkar-EKIN

Gipuzkoako Gizarteratzea
Inclusión Social Gipuzkoa

2016ko ekaina

AURKIBIDEA

0. Aurkezpena eta oinarriak	4
1. Egoeraren diagnostikoa	8
2. Arreta sarearen analisisa: indarguneak, ahuleziak eta aukerak	15
3. Arau esparrua	19
4. Esparru estrategikoa	20
4.1. Gizarteratze Aktiborako III. Euskal Plana 2012-2016	20
4.2. EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019	22
4.3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019	23
4.4. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2015-2017	26
4.5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Jarduketa Plana 2016-2019	28
4.6. Beste erakunde batzuk	32
5. Gipuzkoako Elkar-EKIN Gizarteratze Plana	34
5.1. Planaren helburua eta xedea	34
5.2. Planen arteko lerrokatzea	35
5.3. Gobernantza eredua	37
5.4. Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratze Planaren helburuak	40
5.5. Jarduketa-ildoak eta ekintzak	41

0. Aurkezpena eta oinarriak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak bere erronken artean du gizarte erakunde, udal eta beste erakunde publiko batzuekiko elkarlanean Gizarteratze Plan batean aitzindari izatea. Plan horren sorburuko bokazioa gaur egun gizarte bazterketaren inguruan diren politika sektorialak antolatzea da, eta estrategia berriak bultzatzea, gizarteratzearen helburuari modu eraginkor eta efizientean ekitearren.

Gizarteratze Plan honi Elkar-EKIN izena eman zaio, **elkarlanaren ondoriozko ekintza batetik** abiatu aitzindari hori onartzea eta sustatzea izan dadin ideia nagusia plana diseinatu, garatu eta ezartzeko bidean.

Elkar-EKIN plana bere garapeneko esparru arauemailean eta estrategikoan oinarritzen da eta, ildo horretatik, zeharo bat dator Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotako balio, helburu eta konpromisoekin; izan ere, Aldundiak plan estrategiko hori palankatztat hartu du Gipuzkoaren ekonomia eta gizartea eraldatzeko, kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ahaleginen plangintza eta leheneste egituratua proposatzen duela Gipuzkoaren lehiakortasun, gizarte ongizate eta garapen iraunkorrean etapa berri batean aurrera egin ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarteratze Planak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019ko Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotako helburuetako bi eduki ditu beretziki kontuan, honakoak:

- ***Ekonomiaren susperraldia finkatzea***, enpresen lehiakortasuna sendotuz horretarako. Gure enpresa-ehunaren eraldaketari lagundu behar diogu, enpresa gipuzkoarraren eredu lehiakor eta dibertsifikatu baterantz jo dezan, presentzia global batez, enpresa-portaera lehiakorak sustatuz (berrikuntza, internazionalizazioa eta elkarlana), kalitatezko enpleguaren eta pertsonen enpresa-proiektuaren protagonistatzat parte hartzearen alde eginez, eta gure politika industrial eta ekonomikoaren identitate ezaugarriak sendotuz, bai herrialde bai Lurralde gisa; eta
- ***Gure gizarte ongizate eta kohesio ereduak sendotzea***, horretan argi erakusten baitu Gipuzkoa elkartasunezko espazio handi eta eragile bihurtzeko asmoa, gizarte zerbitzu sistema bikain batean oinarriturik, herritarren behar nagusien arreta etengabea bermatzeko eta ereduaren eta zerbitzuen hobekuntzan sakontzeko, betiere Gipuzkoa komunitate kohesionatu gisa finkatzeko helburuarekin.

Helburu bi horiek lortzera bideratutako hurbilketa eta ekintza prozesuan gutxienez ondoko alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Beharrezkotzat jotzen da helburuen ikuspegia izatea eta horien tratamendu integrala eta sistemikoa egitea, ongizatearen gizartea eraikitzeak eta Gipuzkoa komunitate kohesionatu bihurtzeak eredu bat eskatzen duelako, helburuak OSOTASUNEAN lantzeko eta PERTSONAK planaren izateko arrazoitzat eta justifikaziotzat hartzeko.
- Giza Garapenaren Eredu Iraunkorraren ideia gainean eraiki behar da eredu hori, eta Lurraldearen eta Herrialdearen identitate eta kultura propioak ematen duen indarretik Ekonomiaren Garapen eta Hazkunde Inklusiborako Agenda bat jaso behar du, gure enpresen eta gure ekonomiaren lehiakortasun eta garapenetik aberastasuna sortzea bermatzeko; Giza Garapenerako Agenda bat, gizarte kohesionatua eta pertsonen bizimodu duin eta independentea gozatu ahal izateko aukera bermatzeko; eta Iraunkortasuneko eta Iraunkortasunerako Agenda bat, eredia iraunkorra izan dadin etorkizuneko belaunaldientzat ere.
- Lan egin behar da Gipuzkoa kohesionatua eta elkartasunezkoa lortzeko, eta lurralde hori berdintasunaren erreferente bihurtzeko. Ezinbestekoa da pertsona GUZTIEN partaidetza eta ongizatea bermatzea, lortu nahi den ongizatearen gizarteak eskaintzen dituen onurei dagokienez berdintasun maila handiena erdiesteko eta, halaber, gipuzkoar guztien Aukera Berdintasuna bermatzeko.

Gipuzkoa gizarte kohesionatu eta askea egiteko helburua Onura Komunarekiko konpromisotik izango da posible, gizartea higitzen eta gizartean desberdintasuna bultzatzen duen guztia kenduta betiere. Gipuzkoak berdintasun maila altuak dauzka, maila konparatiboan, Europarekin eta espainiar estatuarekin alderatuz gero oro har, eta Euskadin alderaturik bereziki, baina datu horrek pizgarria besterik ez du izan behar, desberdintasun arrasto oro eta gizarte bazterketarako arrisku faktore oro gainditzeko lanean gogotik segitzearren.

- Behar-beharrezkoa da Plan honetan sartutako politika eta ekintza guztiak Lurraldeko pertsona guztien gizarteratzea justizia eta berdintasun baldintzetan ziurtatzera zuzenduta egotea, eta gizarteratze hori pertsonen duintasunarekin eta demokraziarekiko konbentzimendu eta konpromisotik egitea, zeren eta demokrazian pertsona guztiek eskubide eta aukera berberak eduki behar baitituzte, askatasunez, bakarrik orduan, hau da, denok askatasun berberak ditugunean, izango direlako baldintzak, pertsonak benetan askeak izan daitezen/gaitezen. Giza duintasuna da Giza Eskubideetako lehena, eta askatasunerako premisa da halaber.

- Gizarteratze Plana garatzerakoan emakumeari begiratuko zaio bereziki; izan ere, giza ahultasun egoeran dagoen emakumeak arazo gehiago ditu emakumea izateagatik. Horregatik emakumeenganako ekintza positiboak bultzatuko dira prestazioak eta zerbitzuak eskaintzerakoan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak gidatu behar du Gizarteratze Plana, baina Gipuzkoako gizarte guztiaren laguntza eta partaidetza behar dira, bai zuzenean bai lurraldeko erakunde nahiz eragile politiko, sozial eta kulturalen bitartez; izan ere denon konpromisoa behar da Gipuzkoan ongizatearen gizartea eraikitzeke eta lurralde hori komunitate kohesionatua izateko.

Azpimarratu behar da, garrantzitsua da, Plan honek babes eta oinarri izan duela Gipuzkoako erakundeek pentsatu eta gidatutako zenbait estrategia, politika eta ekintza-planen diseinu, garapen eta aplikazioan lortutako esperientzia luzea, horiek kalitatezko enplegua, osasuna, etxebizitza, gizarteratzea, berdintasuna eta abar izan baitituzte sostengu, betiere guzti-guztia mundura zabaldutako identitate batetik.

Badatorkeen ekonomiaren susperraldiaren aurrean, argi geratu da hainbat hamarkadatan zehar eraikitako gizarte babesekeo eredu gabe askoz nabarmenagoak izango zirela krisiaren ondorioak gipuzkoar gizartean, estatuko eta Europako beste leku batzuetan bezala, eroste-ahalmenari, laneko prekarietateari, pobreziari eta desberdintasunari dagokienez. Eredu horren oinarrian, batetik, gizarte arretako sistemaren funtzionamendua dago, pobreziari % 39an eustea lortu baitu. Eta bestetik, lurraldeko kapital sozial zabal eta dinamikoa du sostengu; kapital hori famili harremanen eta gizarte zibil antolatuaren elkartasunezko sareetan oinarritzen da -hirugarren sektoreak protagonismo berezia du horretan-, pertsonen beharrak konektatzen baitituzte eta horietan laguntzen baitute kohesio, elkarlan, konpromiso, elkartasun, unibertsaltasun, duintasun eta erantzunkidetasun baloreetatik.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Gizarte Ongizaterako eta Kohesiorako Eredu bat indartzeko konpromisoan aitzindari izateko erronka, Gipuzkoa elkartasunaren espazio eta agente garrantzitsu bihurtzeko, gizarte zerbitzuen sistema on batean oinarriturik, uneoro bermatzearen gure herritarren behar nagusien arreta, ereduaren eta zerbitzuen hobekuntzan sakontzearekin batera. Erronka horrek gizarteratze eta berdintasun politiken arloko erreferentzia bihurtu nahi du Gipuzkoa.

Metodologiari dagokionez, azpimarratu behar da Plan honek berekin dakarrela garapenerako beharko duen gobernantza eredua, gauzatu beharreko helburuekin eta jarduera-ildoekin batera. Ildo horretatik, nabarmendu nahi da plan dinamiko, ireki eta kolaboraziozkoa dela, kudeaketa eredu moderno batez hornitua, eta gizarte eragile guztien partaidetza sustatuko duela, horien proposamen, hobekuntza eta iradokizunei esker indarrean den denbora osoan zehar are zabalagotzeko eta aberasteko asmoz.

Plana prestatzeko unean oso kontuan hartu da egoeraren diagnostikoa; horretan aztertu egiten da, laburki, Gipuzkoan pobrezia, gabezia eta gizarte bazterketa egoeren bilakaera.

Era berean, funtsezko iritzi zaio egungo arreta sarearen analisiari, haren indargune, ahulezia eta aukera nagusiak azpimarratuta.

1. Egoeraren diagnostikoa

Gipuzkoan pobrezia, gabezia edo gizarte bazterketako egoerek izan duten bilakaerari buruz kontsultatutako estatistika-iturriek egoera horien halako hazkunde bat jartzen dute agerian, azken urte hauei dagokienez. Hala eta guztiz, pobrezia edo desberdintasun tasek Gipuzkoan EAEko beste lurralde batzuetan eta beste autonomia erkidegoetako batzuetan daudenak baino txikiagoak izaten segitzen dute, are gure inguruko herrialde askotakoak baino ere txikiagoak. Kontsultatutako iturrietatik nabarmendu daitezkeen datuak honakoak dira:

- ✓ Sarrera txikien edo pobrezia erlatiboaren tasa % 15,6koa da (111.000 pertsona baino gehiago); pobrezia larriak, aldiz, Gipuzkoan bizi diren pertsonetatik % 5,4ri eragiten dio, 40.000 pertsonari ia-ia. Gabezia materialak biztanleriaren antzeko portzentaje bati eragiten dio (% 5,2); AROPE tasak pertsonetatik % 19,5i eta etxeetatik % 22ri eragiten die.

1. taula. Pobreziaren adierazle nagusiak. Gipuzkoa 2014
(Eragindako pertsonen eta etxeen tasa eta kopurua)

	Pertsonak		Etxeak	
	Tasa (%)	Eragindakoak	Tasa (%)	Eragindakoak
Diru sarrera txikiak edo pobrezia erlatiboa	15,6	111.655	15,6	44.470
Pobrezia larria*	5,4	38.743	4,4	12.424
Gabezia material larria	5,2	36.834	5,2	14.778
Pobrezia eta bazterketa arriskua (ARPE)	19,5	139.539	22,0	62.669

* Pobrezia larriko egoeran dauden pertsonak pobrezia erlatiboko egoeran dauden pertsona gisa ere kontabilizatzen dira.
Iturria: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2014ko inkesta.

- ✓ Gipuzkoako egoera EAEkoa oro har, espainiar estatukoa eta EB15ekoa baino hobea da pobrezia erlatiboari dagokionez, eta baita pobrezia larriari eta gabezia materialari dagokionez ere EAerekiko izan ezik. Edonola ere, azpimarragarriena da espainiar estatuarekiko oro har dagoen aldea, bai pobrezia erlatiboari bai pobrezia larriari dagokienez, Espainian biztanleriaren % 10 ingururi eragiten baitiote horiek, eta Gipuzkoan % 5 pasatxori besterik ez.

2. taula. Biztanleriaren pobrezia adierazle nagusiak. Gipuzkoa, Euskadi, Espainia eta EB-15 (Eskuragarri dauden azken urteko tasak, biztanleria osoaren gainean)

	Gipuzkoa 2014	Euskadi 2014	Espainia 2013	EB15 2013
Diru sarrera txikiak edo pobrezia erlatiboa	15,6	18,5	20,4	16,4
Pobrezia larria	5,4	4,4	9,3	5,5
Gabezia material larria	5,2	5,2	6,2	7,2

Iturria: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2014ko inkesta; O.E.E Enpleguko eta Gizarte Politikako Departamentua. Gizarte Premiei buruzko inkesta 2014. EDPS-Pobrezia Modulua; Eurostat. EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions) 2013.

- ✓ Pobrezia tasarik txikiak Debagoienera daude, eta handienak, berriz, Debabarrean eta Donostialdean. Donostialdeak -biztanleria handiagoa eta pobrezia tasa handiagoak ditu oro har- Lurraldean dauden pobrezia egoera gehienak hartzen ditu, alde handiz; hala, Lurralde osoan mantentze-pobreziazko egoerak eragindako pertsonetatik % 71 eta pobrezia errealeko egoerak eragindakoetatik % 84 eskualde horretan daude.

3. taula. Mantentze pobrezia eta pobrezia errealeko egoeren prebalentzia eta banaketa. Gipuzkoa 2014

	Mantentze pobrezia		Pobrezia errealak	
	Tasa	Banaketa	Tasa	Banaketa
Donostialdea	7,0	71,1	3,1	84,3
Tolosa-Goierri	5,1	12,6	1,3	8,6
Debagoiena	4,8	6,4	0,4	1,4
Debabarrena	8,4	9,9	1,8	5,7
Gipuzkoa	6,6	100,0	4,2	100,0

Iturria: O.E.E. Enpleguko eta Gizarte Politikako Departamentua. Gizarte Premiei buruzko inkesta 2014. EDPS -Pobrezia Modulua

- ✓ 2008 eta 2014 bitartean, mantentze-pobreziak % 69 egin zuen gora Gipuzkoan, biztanleriaren % 3,9ri eragitetik % 6,6ri eragitera igaroz; pobrezia errealaren kasuan igoera % 68koa izan zen. Edonola ere, aipatu behar da, halaber, ezen bi adierazleei dagokienez Gipuzkoan izandako hazkundea oso txikia izan zela 2012 eta 2014 bitartean, igoera horren zati handiena 2008/2012 epean zehar gertatu baitzen.

4. taula. Biztanleriaren pobrezia adierazle nagusiak. Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta EAE (Eskuragarri dauden azken urteko tasak, biztanleria osoaren gainean)

		2008	2012	2014	Aldakuntza
Mantentze pobrezia	Araba	5,8	7,3	10,5	81,0
	Gipuzkoa	3,9	6,3	6,6	69,2
	Bizkaia	6,7	7,9	8,5	26,9
	Guztira	5,7	7,3	8,2	43,9
Pobrezia erreal	Araba	4,1	5,6	8,2	100,0
	Gipuzkoa	2,5	3,8	4,2	68,0
	Bizkaia	5,2	6,1	6,4	23,1
	Guztira	4,2	5,3	5,9	40,5

Iturria: O.E.E. Enplegu eta Gizarte Politikako Departamentua. Gizarte Premiei buruzko inkesta 2014. EDPS -Pobrezia Modulua

- ✓ Gizarte bazterketako egoerei dagokienez, Gipuzkoako biztanleria lau multzo handitan bana daiteke gizarteratsetik bazterketara doan continuumean, biztanleriaren % 56 izango baikenuke gizarteratze zonan, % 30 gizarteratze prekarioarenean, % 7,8 bazterketa moderatuaren espazioan eta % 5,5 -guztira ia-ia 40.000 pertsona-bazterketa larriaren espazioan. Pobreziaren kasuan bezala, bazterketa egoerek ez diete berdin eragiten biztanleria talde guztiei: Euskadin jaiotako pertsonen kasuan, bakar-bakarrik % 4 dago bazterketa larriko egoeran, eta % 7 bazterketa moderatuko egoeran; atzerrian jaiotako pertsonen kasuan, aldiz, bazterketa egoeran dauden pertsonen portzentajea ia-ia lau aldiz handiagoa da, kolektibo horretan % 40ri eragiten baitio. Bazterketa egoerak maizago ikusten dira, halaber, emakumeak buru diren etxeetan eta haur eta gazte biztanleen artean.

5. taula. Biztanleriaren banaketa gizarteratzea/bazterketa eskalan, zenbait ezaugarri soziodemografikoen arabera. Gipuzkoa 2014 (Ehuneko horizontalak)

		Gizarteratzea	Gizarteratze prekariora	Bazterketa moderatua	Bazterketa larria
Sexua	Gizonak	56,0	30,9	8,0	5,0
	Emakumeak	56,3	30,3	7,5	5,9
Pertsona nagusiaren sexua	Gizonak	56,2	31,0	7,9	4,9
	Emakumeak	55,9	29,2	7,5	7,4
Adina	<18 urte	53,6	33,3	6,7	6,4
	18-44 urte	51,2	32,8	9,6	6,5
	45-64 urte	57,4	29,1	8,4	5,1
	65 urte edo gehiago	64,6	26,7	5,1	3,6
Nazionalitatea	Espainiarra	57,9	30,9	7,1	4,2
	Atzerritarra	21,2	24,8	21,8	32,2
Jaiolekua	Euskadi	58,1	30,8	7,1	4,0
	Espainia (Euskadi izan ezik)	59,6	29,1	6,9	4,4
	Atzerria	27,2	31,0	16,9	24,9
Guztira	Guztira	56,1	30,6	7,8	5,5

Iturria: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2014ko inkesta.

- ✓ Eboluzioaren ikuspegitik, datuek erakusten dute ezen 2012 eta 2014 bitartean murriztu egin dela gizarteratzearen pisua Gipuzkoan, eta beste egoerek, aldiz, gora egin dutela (batez ere bazterketa larriaren eta moderatuaren kasuan). Eboluzio negatibo hori gertatu bada ere, Gipuzkoako egoerak kontraste handia egiten du Espainiakoarekin, han 2009 eta 2013 bitartean bazterketa larriko egoerak ia-ia bikoiztu egin dira-eta.

**6. taula. Biztanleriaren banaketaren bilakaera gizarteratzea/bazterketa eskalan.
Gipuzkoa eta Espainia 2009/2012-2013/2014**

	Gipuzkoa ¹			Espainia ²		
	2012	2014	Bilakaera	2009	2013	Bilakaera
Gizarteratzea	58,4	56,1	▼	37,2	34,3	▼
Gizarteratze prekarioa	29,7	30,6	▲	44,5	40,6	▼
Bazterketa moderatua	7,0	7,8	▲	12,5	14,2	▲
Bazterketa larria	4,8	5,5	▲	5,8	10,9	▲
Guztira	100,0	100,0	-	100,0	100,0	-

Iturria: (1) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko inkesta; (2) LAPARRA, M. (koord.) (2013). *Haustura soziala handitzen ari da: bazterketa prozesuak areagotu egin dira*. Espainia 7 urtetan. Madril: FOESSA Fundazioa, Cáritas Española Editores.

- ✓ Azkenean, esan dezakegu pobrezia eta bazterketa neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleek erakusten dutela ezen, neurri horiei dagokienez, Gipuzkoa hurbilago dagoela EB-15eko herrialdeen batez bestekotik, estatutik baino oro har.

7. taula. Pobreziaren, gabezia materialaren, gizarte bazterketaren eta desberdintasunaren adierazle nagusiak, EAE, Espainia eta EB-15 (Biztanleria osoaren gaineko tasak)

		Gipuzkoa 2014	EAE 2014	Espainia 2014	EB-15 2013
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatiboa edo diru sarrera txikiak	15,6	18,5	22,2	16,4
	Pobrezia larria	5,4	4,9	10,6	5,5
	Gabezia material larria	5,2	5,2	7,1	7,3
	Lan intentsitate txikia	8,4	12	17,1	11,5
	Pobrezia eta bazterketa (AROPE)	19,5	22,7	29,2	23,1
	Biztanleria okupatuaren pobrezia erlatiboa	6,2	-	12,6	8,6
EPDS adierazleak	Pobrezia	5,8	8,2	-	-
	Ongizate falta	12,5	21,9	-	-
FOESSA adierazleak	Erabateko gizarteratzea	56,8	38,1	34,3	-
	Gizarteratze prekarioa	29,7	45,3	40,6	-
	Bazterketa moderatua	8,3	11,4	14,2	-
	Bazterketa larria	5,1	5,2	10,9	-
Desberdintasunaren adierazleak	Gini indizea	26,3	27,1	34,7	30,4
	S80/S20	4	4,2	6,8	4,9
Diru sarreraren adierazleak (euro/hileko)	Batez besteko errenta baliokidea	1.420,60	1.353,20	1.105,70	-
	Pobrezia erlatiboaren atalasea	852,4	811,9	663,4	-
	Pobrezia larriaren atalasea	568,3	541,3	442,3	-

Oharra:EAEko eta Espainiako datu guztiak 2014koak dira, FOESSA adierazleak izan ezik, zeinak 2013koak baitira.

Iturriak: Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 2014ko inkesta; Estatistika Oganoko Espezifikoa, Enpleguko eta Gizarte Politikako Departamentua, Gizarte Premiei buruzko 2014ko inkesta, EPDS-Pobrezia Modulua; INE, Bizi Baldintzei buruzko inkesta; Eurostat, EU-SILC (European Union Statistics on Income and Living Conditions); LORENZO GILSANZ, f (koord.). (2014). Espainiako Bazterketari eta Gizarte Garapenari buruzko VII. Txostena, Madril; FOESSA Fundazioa, Caritas España Editores:FLORES MARTOS, R eta URBICH, T. (Koord.) (2014) Euskal Herriko bazterketari eta gizarte garapenari buruzko txostena. FOESSA Fundazioa.

Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen egoera eta eboluzioa ikuspegi kuantitatibotik aztertu ondoren, egoera horiei aurre egiteko eta ekiteko bitarteko-hornidura aztertzen da, ikuspegi kuantitatibotik halaber:

- ✓ Gipuzkoan 2012an gizarte bazterketaren esparruan egindako gastua, hartzen diren iturrien arabera aldeak daude, 91 eta 115 milioi euro bitartekoa izan zen. Aipatutako lehen kopurua Eustat-en Gizarte Babesaren Kontukoa da, eta bigarrena Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako

Gastu Publikoaren Azterlanekoa. Kasu bietan kontuan hartzen dituzte bai arreta zuzeneko zerbitzuak bai prestazio ekonomikoak (DSBE, EPO, DBL eta GLL, funtsean).

- ✓ Gipuzkoak gizarte bazterketan egindako gastua (129 euro biztanleko) EAekoaren oso azpitik dago, Europakoa baino goraxeago dago, eta Espainiakoaren oso gainetik. Alde nagusiak prestazio ekonomikoetan egindako gastuak ezartzen ditu nagusiki, zehazki DSBEen egindako gastuak. Bakarrik arreta zuzeneko zerbitzuetan egindako gastua hartzen bada kontuan, ikusten da halako defizit bat dagoela Arabarekiko eta EB15ekiko, horietako gastua 40 euro ingurukoa baita biztanleko, eta Gipuzkoa 32 eskasekoa.
- ✓

8. taula. Bazterketako gastuen adierazleak EB15, Espainia eta EAeko hiru lurraldeetarako (2012)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	EB-15 2012	Espainia
Gizarte bazterketako gastua (euro/biztanleko)	206,2	232,4	128,9	194,9	118,2	39,8
Gizarte bazterketari aurre egiteko arreta zerbitzuen gastua (euro/biztanleko)	37	23,9	31,7	28,4	40,1	17
Prestazio ekonomikoetako gastua (euro/biztanleko)	169,2	208,5	97,2	166,5	78,1	22,8
Gizarte bazterketari aurre egiteko arreta zerbitzuen gastua, gizarte bazterketako gastu osoarekin alderatuta (%)	18	10,3	24,6	14,5	33,9	42,7
Gizarte bazterketari aurre egiteko arreta zerbitzuen gastua, gizarte babeseko gastu osoarekin alderatuta (%)	4	2,5	3,3	2,9	5,1	3,6

Iturria: Gizarte Babesaren Kontuen (ESSPROS) eta Eustaten Gizarte Babesaren Kontuaren (SEEPROS) Sistema Integratua

- ✓ Zuzeneko arretako zerbitzuetan Europako gastu maila baino txikiago batekin batera, Gipuzkoak gizarteratzeko gizarte zerbitzuetan egiten duen gastuak hiru elementu ditu ezaugarri: azken urteotan zehar arreta zuzeneko zerbitzuetako foru gastuak izan duen gorakada handia; udalen inplikazio txikiagoa eta foru gastuaren protagonismo handiagoa, bai termino erlatiboetan bai absolutuetan, Bizkaiarekin eta Arabarekin alderatuta; eta prestazio ekonomikoek arreta zuzeneko zerbitzuek baino pisu txikiagoa edukitzea.

2. Arreta sarearen analisisa: indarguneak, ahuleziak eta aukerak

Gipuzkoako gizarteratzeko egungo zerbitzu sare eta prestazioei dagokienez, honakoak azpimarra daitezke:

Indarguneak

- ✓ Zuzeneko arreta zerbitzuen eta prestazio ekonomiko eta sozialen sare sendoa egotea, horrek aukera ematen baitu eskaera gehienei erantzuteko eta pobrezia, bazterketa eta babesgabetasun egoera larriak saihesteko.
- ✓ Apustu politiko eta instituzional sendoa egotea bazterketaren kontrako zerbitzu eta prestazio sarea mantentzeko, are aurrekontuetan murrizketak gertatzen ari diren une batean.
- ✓ Gizarte kontsentsu zabal samarra egotea gizarteratzeko gizarte zerbitzuak mantentzearen alde.
- ✓ Arau esparru aurreratua egotea, oraindik erabat garatu ez bada ere argi eta garbi ezartzen baititu datozen urteetan aurrera egiteko lerroak.
- ✓ Dirua irabazteko erakunde sare sendo eta teknikoki gaitu bat egotea, horrek bitarteko asko sustatzen eta kudeatzen baititu, eta gainera oso eginkizun garrantzitsua betetzen du bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen eskubideen defentsari dagokionez.
- ✓ Eragile guztiek gero eta gehiago bereganatzea gure inguruko beste herrialde batzuetan arrakastaz garatutako eredu, paradigma edo praktika onak, eta inplikaturako eragile guztiek prestagertzea horiek gure herrialdean esperimentatzeko eta aplikatzeko.
- ✓ Gizarteratzeko foru bitartekoen sarea egituratzeko eta antolatzekeo garatzen ari den prozesua.

Ahuleziak

Programa eta bitarteko jakin batzuen garapen eskasarekin batera, sarearen ahulezia nagusia esku hartzeko (are gizarte bazterketa ulertzeko ere) eredu komun eta partekaturik eza eta, batez ere, sistema gisako egituraketa ahula da. Antzemandako zailtasunak honakoak dira:

- ✓ **Sistema egituratzeko aitzindaritza falta.** Arreta sare honen arazo nagusia garapenerako aitzindaritza garbirik eza da. Horregatik, sistema integratu gisa funtzionatzetik urrun dago oraindik. Ildo horretatik, gogoratu behar da gizarte zerbitzuena dela bere arauketa, plangintza eta horniduran gutxienez hiru administrazio desberdinek parte hartzen duten ongizate sistema nagusi bakarra. Konplexutasun instituzional horren ondorioz, zenbait zerbitzu gainjarri egiten dira -hau da, administrazio batek baino gehiagok ematen ditu, paraleloan-, eta gero estali gabeko hutsuneak gertatzen dira, erakundeen arteko koordinazioan sortzen diren zailtasun handiekin batera.
- ✓ **Lehen arretaren eta bigarren arretaren arteko eginkizunak mugatzeko zailtasunak.** Sistemako eragile publikoekiko kontrasteak agerian jartzen du ikuspegi kontrajarriak daudela lehen eta bigarren mailako arretaren eginkizunak mugatzeari dagokionez. Pentsa badaiteke ere hori eztabaida tekniko hutsa dela, oso garrantzi handia du zeren eta, batetik, eskumen maila bakoitzean eginkizun eta erantzukizun zehatzak ezartzearekin lotzen baita eta, bestetik, esku-hartze ereduarekin berarekin eta duen oinarri filosofikoarekin.
- ✓ **Koordinazio eta kudeaketa partekatuko formula egonkorrik eza.** Aipatutako arazoak are zailago gertatzen dira lurralde mailako koordinazio organorik ez izateagatik; horrelako batek, izan ere, bitartekoen plangintza kontsentsuzko bat ahalbide lezake, sortutako arazoetarako konponketarekin edo Gizarte Zerbitzuen Mapatik ondorioztatzen den lurralde mailako zabaltzearekin batera. Bestetik, aipatu behar da Gipuzkoan gutxi erabili direla erakundearteko lankidetzak formulak (mankomunitateak, kontsorzioak, kudeaketa-mandatuak, elkarrekiko kudeaketarako formulak, kofinantzaketa eta zentroen elkarrekiko kokapena...), bitarteko jakin batzuen kudeaketa misto edo partekatua ahalbidetzeko bidean.
- ✓ **Baliabideak lurraldean hedatzeko uneko desorekak.** Zalantzarik ez dago Lurraldeko zona batzuetan gehiegizko baliabide edo bitarteko kontzentrazioa dagoela. Lurralde antolaketari lotutako arazoak ez zaizkio, inolaz ere, bakarrik bitartekoen egungo kokapenari lotzen; kontu honekin lotutako arazo garrantzitsu bat udal titularitateko eta udalez gaindiko esparruko ekipamenduak sustatzeko mekanismorik eza da. Horrek esan nahi du eskualde mailako akordioak hartu beharko liratekeela -behar izanez gero, foru administrazioetik bultzatu edo sustatuak-, hurbiltasun ertainekotzat, hau da, eskualde esparrukotzat jotzen diren lehen arretako bitartekoen plangintzan aurrera egin ahal izatearren.

- ✓ **Gizarte esku-hartzearen esparruan garatzen ari diren paradigma berriak aplikatu beharra.** Esku-hartze eredua dituen oinarri filosofiko edo kontzeptualetatik gaurkotu beharra detektatu da: bizitza-kalitatearen sustapenarekin, kalteek murrizketarekin edo erabiltzaileen autodeterminazioarekin lotutako kontzeptuak jaso behar dira.
- ✓ **Murrizpen ekonomikoak eta finantza-nahikotasuna.** Zerbitzuen finantzaketari dagokionez, aurrekontu publikoen murrizketatik ondorioztatutako zailtasun ekonomikoak mantentzen ari direla aipatu behar da, eta batez ere, Gizarte Zerbitzuen esparruan udalei atxikitako eskumenak finantzatzeko eredu egokirik ez dagoela, bereziki Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen onarpenaz geroztik. Aipatu behar da, halaber, gizarte erakundeek ematen dituzten erantzukizun publikoko zerbitzuak finantzatzeko ereduak hobetu behar dela.
- ✓ **Ebaluazio, kalitatearen adierazle eta ezagutzaren kudeaketaren arloko beharrak.** Agerian jartzen da, halaber, sistema hobeto egituratu ahal izatearren, aurrera egin behar dela prestakuntzari, ikerkuntzari eta ezagutzaren kudeaketari dagokienez, arreta handiagoa emanez ebidentzian oinarritutako praktikaren paradigmari eta, esparru horretan, gizarte esperimentazioari. Ildo horretatik, pentsa liteke proiektu pilotuak bultzatu behar direla -ikuspegi edo planteamendu berritzaileak orokor bihurtu baino lehen esperimentatzeko-, kalitate adierazleak eta esku-hartzeen eraginari buruzko adierazleak aplikatzeko esparru orokorrekin batera.

Aukerak

Sarearen indargune eta ahulezia nagusiak aipatu ondoren, eta Elkar-EKIN planak proposatzen dituen jardueri ekin aurretik, egoki deritzogu SIISek 2015ean egindako analisiko konklusio nagusia jasotzeari¹.

Analisiak diotenaren arabera, azken batean gomendio nagusia da Gipuzkoan itun edo akordio orokor bat egitea foru administrazioaren eta udal administrazioaren artean, oinarritzko lau kontzeptu-printzipiotatik abiatuta, honakoak baitira:

- ✓ **Eredu asistentzialista eta karitatezko edo ongintzazko batetik Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako ereduranzko eboluzioa osatu beharra,** azken hau Gizarte Zerbitzuetarako eskubide subjektiboan, horien gaineko erantzukizun publikoan, arreta komunitario eta hurbiltasunekoan, banakako esku-hartzean eta bizitza-kalitatean oinarritzen baita.

¹ SIIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. "Reordenación de la Red de Recursos y Programas para la Inserción Social de Gipuzkoa. Diagnóstico de Situación y Propuestas de Mejora 2015"

- ✓ **Zerbitzuetarako aukera irizpide barneratzailez, ez baztertzailez, erregulatu** beharra.
- ✓ **Aktibazio eredu inklusiboa garatu** beharra, bizitza-kalitaterantz, gizarteratzerantz eta kalteak murrizterantz bideratuta hura.
- ✓ **Prebentzioan zein gizarte bazterketaren arazoari ekitean bildutako arreta sare bat garatu** beharra, **horrek bere gain har dezan, helburu propiotzat, gizarteratzea sustatzea**. Eta praktikan horrek esan nahi du administrazioen eskumenak -bereziki toki administrazioarenak- ez direla mugatzen balorazio-tresna jakin baten arabera zerbitzu-zorroko zerbitzuetarako aukera izateko baldintzak betetzen dituzten pertsoneri arreta eskaintzera, sentsibilizazio eta dinamizazio komunitarioko jardueretara ere zabaldu behar baitute, nahiz horiek berariaz ez egon Gizarte Zerbitzuen Zorroan sartuta.

3. Arau esparrua

Gizarte Zerbitzuen Sistemaren arau esparruak erantzukizunak ezartzen dizkie erakunde-maila desberdinei, gizarteratze beharrei arreta emateari dagokionez, bai Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legetik bai urriaren 6ko 185/2015 Dekretu berritik, honetan arautzen baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu-eta prestazio-zorroa, horietarako aukera izateko irizpide eta prozedurekin batera.

Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemaren arau esparruan, sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 12/2008 Legeak adierazten du ezen Foru Aldundiek eskumena dutela Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana gauzatzeko bidean onartzen diren gizarteratzeko foru programak prestatzeko eta garatzeko.

Plan honen garapeneko funtsezko partaideei dagokienez, Plan honen barnean garatuko diren ekintzak neurriren batean jasotzen dituzten bi lege berri aipatu behar dira. Alde batetik, 6/1016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa, eta bestetik 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Plan honen asmoa da aipatutako lege horien garapenak ekar ditzakeen aukerak zein Gizarteratze Planen garapenak ekar ditzakeen ahalik eta gehien baliatzea, aprobetxamendurik handiena bilatuz, bikoiztasunak saihestuz eta emaitzak ebaluatuz.

4. Esparru estrategikoa

2016-2020ko Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratze Planak ondoko planok dauzka erreferentzia-esparru estrategikotzat:


- Gizarteratze Aktiborako III. Euskal Plana 2012-2016.
- EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Jarduketa Plana 2016-2019.
- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2015-2017.

4.1. Gizarteratze Aktiborako III. Euskal Plana 2012-2016

Gizarteratze Aktiborako Euskal Planaren ikuspegia pertsona guztiek eskubide eta obligazio berberak dauzkatela sentitzen duten gizartearen eraikuntza sustatzea da; gizarte horretan, norberaren egoera ekonomiko eta soziala dena dela, pertsonen arteko aldeak errespetatu egingo dira, eta dituzten oinarritzko beharrak estali egingo dira, bai ekonomikoak, bai enplegu mailakoak, harreman, hezkuntza, osasun edo etxebizitzari lotuak.

Planaren jarduera-printzipioek ondoren aipatzen diren kontzeptu, arau edota antolaketa mailako elementuak dituzte sostengu:

- bazterkeria- eta gizarteratze-prozesuen ikusmolde multidimentsionala,
- eskubide bikoitzaren bermea,
- pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren arteko aldea,
- gizarteratze aktiboaren metodoa,
- Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak gidatzen duen plana, erantzukizuna sistema guztiei dagokiena bera, eta
- sarbide unibertsala eta pertsonen arreta normalizatua.



Pobrezia eta gizarte bazterketa murrizteko helburu horretarantz aurrera egiteko, Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana 9 helburu estrategikotan dago egituratuta; horiek, oro har eta bakoitzaren dimentsiotik abiatuz, gizarteratze aktiboaren ikuspegia eta esku-hartzearen metodoa garatzen dituzte.

Helburu estrategikoak

1. Gizarteratzea bultzatzea, enplegutik aktibatuz pertsonarik ahulenak, pobrezia eta gizarte bazterketa murrizteko, errenta maila duina eta enplegu batean aritu daitezkeen pertsonen enplegu itxurazko baterako aukera ziurtatuta.
2. Gizarteratzea sustatzea Gizarte Zerbitzuetatik aktibazioaren bidez; izan ere zerbitzu horiek pertsona guztien gizarteratzea eta autonomia sustatu behar dute, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarte ongizatea ahalbidetu, sustapen, prebentzio, babes eta laguntza eginkizunak garatuz horretarako, eta funtsean izaera pertsonalekoak eta erlazio izaerakoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez, eta dituzten zerbitzuak sendotu egin behar dituzte gainera, bai ahulezia egoerak direnean, bai gizarte bazterketako arriskua dagoenean, bai gizarte bazterketa denean.
3. Gizarteratzea sustatzea hezkuntzatik aktibazioaren bidez, bizitza osoan zehar.
4. Etxebizitza politiketatik gizarteratze aktiboa bultzatzea.
5. Osasunetik gizarteratze aktiboa sustatzea, zenbait neurri eta ekintza inplementatuz horretarako, eta gogoan izanik, betiere, helburu hauek: osasun zerbitzuetarako aukeraren ekitatea, gizarte bazterketa egoeren prebentzioa, eta gizarteratzearen arloan inplikaturako eragileekiko koordinazioa.

6. Modu egonkorrean egituratzea eta bultzatzea administrazioarteko, erakundearteko eta sistema anitzeko koordinazio eta lankidetzazko gobernantzarekin batera, Gizarteratze Aktiborako Euskal Planaren eraginkortasun eta efizientzia hobetearren.
7. Hirugarren Sektoreko erakundeek ekarpenaren balioa aitortzea eta bultzatzea gizarte bazterketan edo bazterketa arriskuan dauden kolektiboekiko lanean.
8. Plangintza estrategikorako eta berrikuntzarako analisiak, azterlanak eta txostenak egitea, diru sarrerak bermatzeko politiketara, enplegura eta prestakuntzara begira, lanerako aktibazioan eta laneratzean laguntzen duten ikuspegi berriak definituta.
9. Indarrean dagoen arau esparrua egokitzea, gizarteratze aktiboko prozesuak antolatu eta ahalbidetearren.

Helburu estrategiko horiek, era berean, helburu orokorretan daude garatuta, eta azken hauek, berriz, neurri edo jarduketak gisa. Horri dagokionez, aipa genezake ezen, aurretiko esperientzia baliatzeko, ahaleginik ez bikoizteko, eta gizarteratze aktiborako politiken transbertsalitatea beste politika publikoetan bultzatzeko, kontuan hartu behar direla administrazio autonomikoa arlo horretan euskal gizarteari eskaintzen ari zaizkion bitartekoak, hala nola Gizarteratzeko Planean aurreikusitako jarduketak zehaztearren dagoeneko martxan diren plan eta estrategia sektorial edo transbertsalak.

4.2. EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xedea pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea da, eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonen eta harremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez; horretaz gain, gizarte ongizatea lortzea ere badu xede, beste sistema eta politika publiko antzeko edo osagarriekin koordinatuta eta lankidetzan jardunda. Horretarako, Katalogoa osatzen duten zerbitzu eta prestazioak jasotzeko eskubidearen titular direnei zerbitzu eta prestazio horiek jasotzeko aukera hori eskubide subjektibotzat bermatzea, legean eta Zorroan xedaturiko baldintzetan, erantzukizun publikoko sarea egituratu eta antolatuta, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduez osatua, kudeaketa publikoa eta gizarte ekimenaren bidezko kudeaketa gailen direla.

Ikuspegiari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sistema unibertsal eta erantzukizun publikokotzat sendotzea, sistema horretako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukera eskubide subjektibotzat bermatu ahal izateko. Eta legean aurreikusitako arreta-eredu komunitarioaren edo ikuspegiaren arabera hedatzea.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren xedea eta ikuspegia aintzat hartuta, hona hemen plana egituratzen duten bost ardatzak:

- 1. ardatza. Arretaren unibertsalizazioa, lurralde antolamendua eta ekitatea sarbidean.
- 2. ardatza. Eredu komunitarioa eta, batik bat, prebentzio ikuspegia finkatzea eta garatzea, eta arreta pertsonalizatzea.
- 3. ardatza. Sistemaren barne egituraketa eta GZESren gobernu- eta kudeaketa-sistema garatzea.
- 4. ardatza. Baliabideak optimizatzea, baliabideak premien arabera egokitzea eta eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.
- 5. ardatza. Beste sistema batzuekin lankidetzan jardutea.

Planak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erantzukizunak dituzten administrazioekin adostutako tresna izan behar du; alegia, Eusko Jaurlaritzarekin adostez gain, foru aldundiekin eta udalekin adostu beharko da.

Era berean, planak hirugarren sektore sozialarekiko lankidetzaren indartzeko elementu baliagarri izan behar du, laguntza-sare informalentzat euskarri, sistemen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako guneak eratu eta ezarri behar ditu, eta herritarrek modu antolatuan parte har dezaten sustatu.

4.3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019

Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019 tresna nagusia izango da, datozen urteetan GFAREN gobernu jardueraren aitzindaritzarako eta orientaziorako. Planak Foru Aldundiaren ahaleginen plangintza eta leheneste egituratu bat proposatzen du, gogoan harturik horretarako honako helburu estrategikoak:

1. Ekonomiaren erredukzioa finkatzea, enpresen lehiakortasuna sendotuz horretarako.
2. **Gure gizarte ongizate eta kohesio ereduaren sendotzea.**
3. Gure Lurraldea modernizatzeko gauzatzeko dauden proiektuei ekitea.
4. Gipuzkoako gobernuaren atzera asmatzea, Lurraldearen garapen eta eraldaketa bultzatzen duen motorra izan dadin.
5. Herritarren arteko elkarbizitza finkatzea, ezinbesteko baldintza delako Lurraldeko pertsona, herri eta hirien erabateko garapena lortzeko.

“Gure gizarte ongizate eta kohesio eredia sendotzea” helburu estrategikoak eskatzen du gure herriaren eta gure Lurraldearen zutabetzat mantendu eta garatu behar dugun ongizatezko gizarte eredu baten alde egitea, Gipuzkoa elkartasunezko espazio handi eta eragile bihurtuta, gizarte zerbitzu sistema on batean oinarriturik, hain zuzen gure herritarren behar nagusien arreta etengabea bermatzeko eta ereduaren eta zerbitzuen hobekuntzan sakontzeko.

Helburu horiek lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromiso batzuk hartu behar ditu Gipuzkoako gizartearekiko:

- Industria aurreratua
- Gizarte ekintzailea
- Herritarren zerbitzurako azpiegiturak
- Jasangarritasun integrala
- Elkarbizitzaren eta balioen kultura
- Hizkuntzen elkarbizitza berdintasun planoan
- Lurralde oreka
- Mundu guztira irekitzea
- Gobernantza ona
- Justizia soziala

Azken konpromiso honi dagokionez, azpimarratu behar da desberdintasun ekonomikoa eta soziala areagotzea izan dela krisiaren ondorio txarrenetako bat. Horretatik dator, hain zuzen, Gizarte Zerbitzuen Sistema garatzeko unean lankidetzan aritzera begira Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromisoa; izan ere zerbitzu horiek funtsezkoak dira gizarte ongizateari eta kohesioari egiten dioten ekarpenarengatik.


Gipuzkoak maila handia du gizarte beharren estalduran, eta hori zerbitzu eta prestazio publikoak, Foru Aldundiari dagozkionak nahiz beste erakunde batzuen mende daudenak, erabiltzen dituzten biztanleen proportzioan islatzen da. Hala ere, zerbitzuen eskaera areagotzen doa zerbitzu eta prestazio gehienetan, eta horrek, batetik, gastu publikoa areagotzea dakar, baina bestetik, behar bezalako arreta eman beharko zaion eskaera sorrarazten du.

Eskaera hori aldaketa sozial eta demografikoen eragin dute, batetik, baina baita zerbitzu eta prestazioen eskubide subjektiboaren onarpenean pixkanaka aurrera egiten duen lege-esparru baten garapenak ere; eta zerbitzu eta prestazio horiek, logikoki, Administrazioarentzako betebeharrak handiago bihurtzen dira. Betebeharrak horiek gainerako gizarte erakunde eta entitateekiko koordinazio handiagoa eskatzen dute, baita egungoak baino baliabide gehiago ere, batez ere beste asmo batzuei gehitzen bazaizkie -zerbitzuen kalitatea hobetzea, langileentzako lan-baldintza hobekaldarrikatzea eta zentroak modernizatzeko beharrezko inbertsioak, eta azkenik, Gizarte zerbitzuen Legeak zehaztutako eskumenak doitzearen ondorioak-.

Baina frogatuta dago gizarte zerbitzuen hedapen hori aukera bat dela jarduera ekonomiko berriak sortzeko, eta bereziki, enplegu zuzena eta eragindako enplegua sortzeko.

Azkenean, kontuan hartu behar da politika publikoek Gipuzkoaren gizarte kohesioari egiten dioten ekarpena. Administrazioa ez da kohesio horren erantzule bakarra, eta ez du izan behar. Baina antolatutako gizarte zibilarekin elkarlanean, eta herritarren eguneroko jarduerarekin batera, bere jardura erabakigarria da Gipuzkoa ongizatezko gizarte modernoa, europarra eta erakargarria izan dadin, bere herritarren aurrean eta munduaren aurrean.

Helburu estrategikoen garatzeko, Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019ko proiektu estrategikoen sorta bat identifikatzen du; horiek, Gizarte Politikako Departamentuaren kasuan, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa emango digute.



4.4. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2015-2017ren helburua gizarte ongizateko eredia indartzea da, eta horretarako, eta beste gizarte erakunde batzuekiko lankidetzan, zerbitzua eta lurralde oreka hobetu beharko ditu, enplegua sortu eta sostengu sare naturalaren osagarritasuna garatu.

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak Gipuzkoako errealitatera ekartzen ditu EAeko 2015-2018 Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako plangintza irizpideak, eta zerbitzuak nola hedatu proposatzen du, 2019an orain dagoen arreta estalduraren mailari eusteko.

Horretarako, Mapan aurreikusten da arreta premiak handiagotu egingo direla, Gipuzkoan gizarte zerbitzuek estalitako kontingentziaren batek potentzialki ukitutako biztanleriaren eboluzioaren ondorioz. Hainbat faktore daude oraingo arreta sistema indartzea eskatzen dutenak, besteak beste, 65 urtetik gorako biztanleen pisu erlatiboa gero eta handiagoa izatea, gaixotasun mentalen intzidentzia areagotuz joatea edo gizarte bazterkerian edo babesgabezia erortzeko arriskua emendatzea. Alde horretatik, Mapan aurreikusitako zerbitzuak eta prestazioak hedatzea funtsezko estrategia da Gizarte zerbitzuen legeak aurreikusitako unibertsaltasuna, eskubide subjektiboa 2017rako garantizatzen duena, betetzeko bidean aurrera egiteko.

Horretarako, Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019k lehentasunezko helburu eta ekintza-ildo batzuk definitzen ditu; Gizarte Politikako Departamentuari dagokionez, honakoak izango lirateke (Gizarteratzeko Elkar-EKIN Planarekin lotutako ekintza-ildoak laranjaz nabarmendu dira).

GFAREN KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2019 (1)	
GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMEN- TUAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	JARDUERA ILDOAK
Arreta bermatzea eta Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoko eskaintza egokitzea gizarte beharren bilakaerari, eta eskaintzaren lurralde oreka lortzea	Bazterketa, mendekotasuna edo babesgabezia egoeren ondoriozko beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak eskaintzea
	Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako estaldura eta inbertsio aurreikuspenak exekutatzeko
	Gizarte baliabideen eskaintzak lurralde orekak murriztea
	Plangintza bateratua eta sistemaren koordinazioa sustatzea
	Mendeko pertsonen eta desgaituen autonomia sustatzea
	Bazterketa arriskuan edo egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta arreta sustatzea. Elkar-EKIN Gizarteratzeko Plana diseinatu eta gauzatzea
	Babesgabezia arriaskuan edo egoeran dauden pertsonen eta familiei eskaintzen zaien arreta hobetzea
Zerbitzu eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea, bermatzeko pertsonen beharrei egoki eta ahal den gertutasun handienaz erantzun zaiela	Itxaron zerrendak eta itxaron denbora murriztea
	Mendekotasunaren prestazio ekonomikoak PEAP eta PEVS prestazioak estaltzera bideratzea, zaintzaren profesionalizazioa eta artatutako egoeren jarraipena sustatuz
	Ingurunean zaintzeko zerbitzuak eta prestazioak berriz diseinatzea, zerbitzu horien kalitatea eta erakargarritasuna hobetzeko
	Zerbitzuen irisgarritasuna eta administrazio jardueraren arintasuna hobetzea
	Zentroak kalitate estandar berrietara egokitzea
	Sarean eskainitako zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia optimizatzea
Gure sarea egokitzeko lanetan aurrera egitea, Gizarte-zerbitzuen Legeak eta hori garatzen duten tresnek ezarritakoaren arabera	KABIA organismo autonomoaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzea
	Udalekin akordioa lortzea eskumenak nahiz finantzaketa doitzen joateko
Koordinazio sozio-sanitarioko eredu bultzatzea, pertsonen beharretara eta dauden baliabideen optimizaziora egokitutako arreta integrala eskaini ahal izateko	Gipuzkoako gizarte eta osasun arloko 2015-2017 plan operatiboan jasotako proiektu bateratuak garatzea

GFAREN KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2019 (2)	
Elkarlan publiko-pribatuaren formula berriak aztertzea eta ezartzea, ekonomikoki jasangarriak diren kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeako	Gizarte zerbitzu berrietan inbertitzeko lankidetzak aukerak eta formulak identifikatzea eta aztertzea
	Plaza berriak eskaintzeko hitzartze formulari lehentasuna ematea
Hirugarren sektorearen parte hartzea sustatzea kide estrategiko gisa, gizarte ongizatea eta kohesioa, nahiz enplegu zuria sortzeko	Enplegagarritasuna hobetzea, desgaitasuna duten eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko bide gisa
	Proiektuak sustatzea kohesioa eta gizarteratzea lortzeko, balio kolektiboak sortzeko eta gizarte arazoak garaiz detektatzeko
	Gizarte ekintzako programak garatzeko berrikuntza sustatzea, eta boluntarioak antolatzen diren formula berriak sustatzea
	Hirugarren sektoreko entitateen gizarte baliabideak eraiki, berri eta modernizatzen diren urte anitzeko plan bat onartzea
	Hirugarren sektorearekin hausnarketa bat egitea sistemaren eraginkortasunean eta gizarte zerbitzuan jasangarritasunean sakontzeko
Gizarte zerbitzuen arloan I+G+B jarduerak, ebaluazioa eta praktika onak sustatzea, arreta komunitarioa indartzeko, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, kostuak arrazionalizatzen diren eta gizarte premia berri erantzuteko	Gizarte zerbitzuen alorrean ikerketa eta praktika berritzaileak garapena sustatzea
	Ebaluazio metodologiak proposatutako helburuen betetze maila neurtu daitezkeen prozedura guztietara
	Kalitatea eta erabiltzaileen asebetetasuna neurtzeko sistemak modu orokorrean ezartzea
	Laguntzako teknologiak eta produktuak sustatzea, gizarteratzea, autonomia eta norbere etxean jarraitzea lortzeko
	Gipuzkoako Gizarte Behatokia, BEHAGI, eguneratzea eta handitzea, gipuzkoarren bizi baldintzei eta ondizateari buruzko eta gizarte zerbitzuei buruzko informazio garrantzitsua, sistematizatua eta eguneratua eduki ahal izateko

4.5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Jarduketa Plana 2016-2019

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren helburua da herritarren eskubideak bermatzera eta, horrenbestez, pertsonen bizi-baldintzak hobetzera eta Gipuzkoan gizarte kohesioa ziurtatzera begira duen erantzukizun

publikoa betetzea, eginkizun horretan beste gizarte eragile batzuekiko lankidetzan arituta.

Garatu behar duen lana, labur azaldurik, ondoko lau jarduera-arlotan oinarritzen da:

- Mendekotasunaren eta desgaitasunaren arreta
- Haurrak eta nerabeak babestea
- Gizarteratzea sustatzea
- Indarkeria matxistaren biktimei arreta

Lau jarduera-arlo horietatik abiatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak Jarduketa Plan bat onartu du. Plan hori kudeaketa-tresna bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoan txertatzera bideratua, eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019 garatzeko lanabes bihurtu behar du. Horretarako, Gizarte Politikako Departamentu honen plangintzari erantsi egin zaizkio aipatu plan autonomiko horren arabera hiru foru aldundiei dagozkien jarduketak eta, era berean, eta Planaren edukiarekiko errespeturik gorenez, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotzen diren beste jarduera-ildo batzuk hartu dira aintzat.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Jarduketa Plana

Gizarte Politikako Departamenturako planak 3 ardatz, 6 helburu estrategiko eta 29 helburu operatibo jasotzen ditu. Ondoko taulan azpimarratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019ko Kudeaketa Planaren helburuekiko lotura, zehazki gizarteratzeari dagokionez.

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA PLAN 2016-2019		
ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBERU OPERATIBOAK
GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAKETA, ESTALDURA ETA KALITATEA HOBETZEA	Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistemaren antolaketa eta kudeaketa hobetzea	Plangintza bateratua eta sistemaren koordinazioa sustatzea Zerbitzuen eraginkortasuna optimizatzea Zerbitzuen irisgarritasuna eta administrazio jardueraren aintasuna hobetzea
	Arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea	Arreta estaldurak egokitzea aurreikusitako beharrei aurre hartzeko Norbere esparruan artatutako pertsona kopurua igotzea Detekzio goiztiarra sustatzea lehenago esku hartu ahal izateko Zerbitzuen kalitatea hobetzea Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren indartutako duena, arreta bereziki jarrita ekimen sozialarekiko lankidetzan Erreferentziako profesionalaren figura indartzea, Zorroari buruzko lege eta dekretuaren zehaztutakoa Zentroak kalitate estandar berrietara egokitzea Ezagutzaren eta berrikuntzaren kudeaketa partekatzea Osasun sistemarekin lankidetzaren sustatzea Berrikuntza sustatzea desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zerbitzuetan Laguntza gehiago eskaintzea zaintzailerei Etxetek programaren estaldura eta kalitatea handitzea Egon daitekeen eskaerara eta erantzun gabeko premietara hobeto egokituutako Etxeko Laguntza Zerbitzua sustatzea. Prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko erantzukizun publikoa onartzea Komunitatearen esparruan autonomia sustatzeko zerbitzuak garatzea eta bultzatzea
GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUAK ORAINGO ETA GEROKO ESKARIAREN ALDAKETEI EGOKITZEA	Mendeko pertsonen eta desgaituen autonomia sustatzea	Esku-hartze ereduak gizarte zerbitzuen legean ezarriakora egokitzea Gizarte programetan aukerak sortzea sustatzea Baliabideak gure beharretara egokitzea Adingabeekin eta beren familiekin prebentzioa, detekzio goiztiarra eta esku hartze azkairra indartzea Adingabeenitzako zerbitzuak beharren baliakerrari eta artatutako pertsonen profilari egokitzea Indarkeria matxistaren biktimei arreta integralagoa eskaintzea Larrialdi egoeretan arreta eraginkorra bermatzea Babesgabeziako egoera guztietan esku hartzea Udalekin Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin Erakunde guztiekin
	Erakunde guztietan arteko lankidetzaren indartzea eta koordinazioa sustatzea gizarte zerbitzuak garatzeko	Babesgabezia arriaskuan edo egoeran daudenei eskaintzen zaien arreta hobetzea

KU-DEAKETA PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2019 Gipuzkoako Foru Aldundia

Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen eskumen esparruan herritarren eskubideak bermatzeko duen erantzukizun publikoa betetzea, pertsonen bizi baldintzak hobetzen laguntzeko eta Gipuzkoako gizartearen kohesioa sendotzeko, beste gizarte eragile batzuekin elkarlanean.

Ikuspegia

- ✓ Udalekin, hirugarren sektoreko erakundeekin, beste administrazio publiko batzuekin eta beste lankide batzuekin batera lurraldean gizarte zerbitzuen sare integratu eta partekatu bat eraikitzea sustatzen duen erakundea izatea, bere jardueraren bidez Gipuzkoako gizartearen bilbadura, elkartasuna eta kohesioa indartzen dituen erakundea.
- ✓ Ematen dituen gizarte zerbitzu eta laguntzen bidez erabiltzaileen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea eta Gipuzkoako herritarren gogobetetasuna emendatzea lortzen duen erakundea izatea.
- ✓ Artatutako pertsonen bizi kalitatea hobetzera bideratutako eredu bat definitu duen erakundea izatea, besteak beste printzipio hauetan oinarrituta:
 - pertsonalizazioa
 - osotasuna
 - pertsona bere harreman sarearekin batera tratatzea
 - hurbiltasuna
 - jarraitutasuna
 - lagun egitea
 - helburuko pertsonen erantzukizuna
 - autonomia sustatzea
 - eskubideen ikuspegia
 - plangintza
 - aurre hartzea eta prebenitzea

- ✓ Ikuspegia betetzeari begirako kudeaketa duen erakundea izatea, egiten dituen jarduketan emaitzak neurtzen eta ezagutzen dituen.
- ✓ Esandako hori guztia artatzen ditugun pertsonen eta langileen partaidetzarekin egiten duen erakundea izatea, ezagutza eta berrikuntza sortzeko informazioa, komunikazioa eta ikaskuntza erabiltzen dituen.

Balioak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren Jarduketa Planak honako balio hauek dauzka oinarri:

- Erantzukizun publikoa
- Gardentasuna
- Pertsonenganako orientazioa
- Pertsona eta kolektiboen erantzukizuna, autonomia eta ahalduntzea
- Pertsonalizazioa
- Hurbiltasuna
- Parte hartzea
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna
- Justizia soziala
- Ehun sozial eta komunitarioa indartzea

4.6. Beste erakunde batzuk

Azpimarratu behar da, garrantzitsua baita, gizarte politiketan erantzukizuna duten administrazioen artean lankidetzak, elkarlan eta partaidetzak partekatuan oinarritutako ereduak eta jarduketak-esparrua finkatzeko helburua; administrazio horiek Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak izango lirateke, beste zenbait eskualde-erakunde eta beste eragile batzuekin batera.

Era berean, planak lankidetzak indartzeko elementu baliagarri izan behar du, laguntza-sare informalentzat euskarri, sistemen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako guneak eratu eta ezarri behar ditu, eta parte hartzen duten eragileen artean partaidetzak antolatua sustatu behar du.

Plan honen jarduera-esparruak Lurralde Historiko osoa hartzen badu ere, Planaren bidez sustatu egingo dira lurralde-esparru txikiago batean gizarteratzea sustatzen duten analisiak, diagnostikoak eta planen diseinua.

Ildo horretatik, azpimarratzekoa da **Donostiako Udalarekin** bere Gizarteratze Planari dagokionez **garatutako lankidetz**a.

Atal hau amaitzeko, azpimarratu behar da Elkar-EKIN Gizarteratze Planak lagundu egingo duela orain arte aipatutako planetan aurreikusi diren helburuak bete daitez.

5. Gipuzkoako Elkar-EKIN Gizarteratze Plana

5.1. Planaren helburua eta xedea

Gizarte Politikako Departamentuak, bere Elkar-EKIN planaz, Gipuzkoan gizarteratzera zuzendutako gizarte zerbitzuen antolaketa, estaldura eta kalitatea hobetu nahi ditu, eta horretarako arlo honetan ari diren beste eragile publiko eta sozialekiko lankidetzan jardun.

lido horretatik, plan honen helburu nagusia aitzindaria izatea da, bai desberdinen artean eraikitzeke bai gizarteratzeranzko bidean estrategia eraginkorrek bultzatzeko.

Gizarteratze plan honi Elkar-EKIN izena eman zaio, elkarlanaren ondoriozko ekintza batetik abiatu aitzindaritza hori onartzea eta sustatzea izan dadin ideia nagusia plana diseinatu, garatu eta ezartzeko bidean.

Idea nagusi horrek, arrakastaren giltza izango da Planarentzat, zenbait gauza eskatzen ditu:

- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren konpromisoa azpimarratzea, gizarte bazterketaren arloan eta gizarteratzeko lanean ari diren eragile guztien lanaren alde egiteko.
- ✓ Onartzea gizarte bazterketako egoerei lotutako kontzeptuak, egoera horiek ulertzeko eta horietara hurbiltzeko moduak, eta gizarteratzea bultzatzeko egoera horiei erantzuteko erak asko eta askotarikoak eta, beraz, konplexuak direla eta, horrenbestez, eragile inplikatu eta konprometitu askoren partaidetza behar dutela, gizarte bazterketari erantzun egoki, inklusibo eta mantengarriak eman ahal izatearren.
- ✓ Desberdinen arteko lana ulertzea, partekatzea eta ahalbidetzea.
- ✓ Plan honetan gizarte erakundeek, udalek eta Gipuzkoako beste erakunde publiko batzuek bete behar duten papera balioestea.
- ✓ Plan honetan parte hartzeko erakartzea tradizionalki begirada inklusiboa landu ez duten beste gizarte sektore batzuk.

Garrantzitsua da pobrezia egoerak eta gizarte bazterketakoak bereiztea, egoeraren analisia jasotzea, eta pobrezia eta bazterketaren kontrako borroka administrazioen jardueren erdian eta, beste neurri sorta oso baten bidez, agenda politikoaren lehentasunen artean kokatzea. Horien artean prebentzioa nabarmendu behar da,

pertsona desfaboratuenak laneratzea eta hirugarren sektoreak eta gizarte ekimenak eskaintzen duten laguntza-sarearen babesa ahalbidetuz horretarako, gizarte eta laneratze zerbitzu eta neurrien sustapenarekin batera.

Administrazio publikoek, gizarte erakundeekin eta hirugarren sektorearekin batera, modu koordinatuan erantzungo diete Plan honen esparruan gizarte bazterketaren kontra borrokatzeko diseinatutako jardueri; horien helburua gizarte ahuleziako egoeran egon daitezkeen pertsonak, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistemak arreta eman diezaiekeenak, baloratuak izatea izango da, eta pertsona horiek gizarteratze ibilbide pertsonalizatuak zertzeko eta gizarte erakundeekiko elkarlanean garatutako programa, zerbitzu eta prestazioetara iristeko orientazioa jasotzea halaber, erantzukizun publikoaren esparruan.


Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak, Elkar-EKIN planaren bidez, aitzindaritza eraldatzailea onartu eta garatu behar du, horretarako oinarri harturik honakoak: desberdinen arteko lankidetzak; gizarte, ekonomia eta kultura alorretako eragile guztien partaidetzak; eta gizartearen berrikuntza, egun dauden gizarte bazterketa arazoei aurre egiteko behar diren gizarteratze erantzunak identifikatu eta aurkitzeko; eta bere **xedearekin** duen konpromisoan:

“Denon artean, elkarlanean, Gipuzkoan gizarte solidarioagoa, berdina goa eta inklusiboagoa lortuz pertsonen gizarteratzeko arriskua sortzen duten faktoreak ezabatuz eta pertsona ahulenei gizarteratzea errazteko baliabideak emanez”.

5.2. Planen arteko lerrokatzea

Ondorengo argibide taulan adierazten da orain arte aipatutako planen arteko lotura Gizarteratze Planarekiko.

GIPUZKOAKO
2016-2020
Elkar-EKIN
GIZARTERATZETZKO
PLANA



LANKIDETZA ETA PARTE HARTZEA, GIZARTE ENTITATEKIN, UDALAKIN ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOekin

5.3. Gobernantza eredua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-EKIN Gizarteratzeko Planaren gobernantza eredua Planaren Gobernu Ona ziurtatzeko eta dituen helburu estrategikoak betetzea ahalbidetzeko eraikitzen da, eta baita plana zehazteko interesa eta gauzatzeko konpromisoa duten politika, gizarte eta hezkuntza alorretako eragile guztien partaidetza eta lankidetzarekin ere.

Azpimarratu nahi da plan bizia, irekia eta elkarlanean egitekoa dela; horrela, gizarte eragile guztien partaidetza sustatu nahi da, eta, eragile horien ekarpen eta proposamenak erabiliz, plana zabaldu eta aberastu nahi da, indarrean dagoen bitartean.

Ondoren aurkezten den ereduak oinarritzat hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Orkestrak azken zazpi urtean zehar garatu duten “Gipuzkoa Sarean” proiektuan erabilitako metodologia. Ereduak Karlsen eta Larreak² jasotako ikerkuntza, ekintza eta partaidetzaren eredua du oinarri kontzeptualtzat.

Eredu horretatik aurrera, aurreikusten da Deustuko Unibertsitateko Gizarte Lan eta Soziologia Saileko ikertzaileek prozesua dinamizatzea, eragileen arteko elkarrekintza ahalbidetuz eta horiei lagunduz egiten dituzten ekarpenak sistematizatzen, elkarrekiko eraikuntza prozesu bat bultzatuz horretarako, elkarrekin definitzen diren arazoentzako erantzunak bilatzearen.

Oinarrizko printzipioak

- 1) **Ezagutzaren kogenerazioa.** Parte hartzen duten eragileek ekarpenak egiten dituzten eta elkarrekin definitutako arazoa elkarrekin eraikitzen duten prozesu batetik abiatuta.
- 2) **Garatzeko bidean dagoen prozesua.** Lantaldea da bilera bakoitzeko prozesua definitzen duena, era linealean itxuratuz hori. Fase bakoitzak hurrengoa definitzen laguntzen du.
- 3) **Parte hartzaile guztien partaidetza eta ekarpenak errespetatzea.**

Abiapuntuko esparrua


Ikerketa-ekintza-partaidetzaren esparru kontzeptualetik abiatzen gara. Ikerketa-ekintza esparrua denbora errealean aldatzeko estrategia gisa zehazten da, non ikerketa, ekintza eta partaidetzako elementuak prozesu berean elkartu eta lotzen diren.

² Karlsen, J y Larrea, M. (2015): *Desarrollo territorial e investigación acción*, Donostia: Publicaciones Deusto.

Prozesuaren faseak

Parte-hartze prozesu honek eredu zikliko bat zehazten du, gauzatu ahala sortzen doana, eta bertan identifikatuta dauden eragileek elkarren artean eraikitzen dituzte ereduaren definizioa eta garapena, arazoaren ezaugarriak eta garapena azalduz. Prozesuak ondorengo fase hauek izango ditu:

Partaidetzazko aldaketa, gauzatu ahalako ikaskuntza gisa.



1. Kanpo eta barne eragileak identifikatzea.

a. Barne eragileak Gipuzkoan gizarte bazterketaren esparruan erabakitzeke eta solaskidetzarako gaitasuna duten guztiak dira. Lehen fase honetan eragileek bere solaskidetza eta ordezkaritza eredu egituratu behar dute. Eta baita itzaropenen definizioa ere. Fase hau definitzeko eragile posibleak honakoak izan litezke:

- i. Gipuzkoako Foru Aldundia
 1. Politikariak
 2. Teknikariak
- ii. Gipuzkoako udalak
 1. Zinegotziak
 2. Teknikariak

- iii. Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak. Gizarteratzearen esparrua.
 - 1. Erakunde zerbitzu-emaileak.
 - 2. Erakundeak biltzen dituzten plataformak.
 - 3. Sektoreko beste erakunde batzuk.
- iv. Esparru sozioekonomikoa.
 - 1. ADEGI
 - 2. Merkataritza Ganbera.
 - 3. Sindikatuak.
 - 4. Kooperatibak.
- b. Kanpo eragile gisa Deustuko Unibertsitateak berak parte hartuko luke, planeko ikaskidetzarako metodologia ahalbidetu duena baita.

2. Arazoa zehaztea.

- a. Eztabaida prozesu bat garatzen da. Horretan eragileek arreta-xede den arazoa definitzen eta lehenesten dute, ondoko lana haren gaineko ikuspegi partekatu batetik hasteko.

3. Elkarrekiko gogoeta eta ikaskuntza espazioa.

- a. Gogoeta eta ikaskuntzarako espazioak (agorak) garatzea elkar ezagutza sortuz, ekintza komunikatiboak eta topaketak zertuta ingurune egituratu batean. Espazio horiek dinamizatzeko, Deustuko Unibertsitateko bideratzaileek esparru kontzeptualak eskainiko dituzte, erantzunak sortzearen.

4. Arazoa ekintzaren bidez konpontzea.

- a. Barne eragileek ekintzak inplementatuko dituzte, prozesuan zehar jorratutako arazoak konpontzera begira. Ekintzak lehenestea eta pilotatzea horretarako diseinatzen den lan-prozesuaren parte da.

5. Praktikan eta praktikari buruz ikastea.

- a. Ebaluazioa. Barne eragileek prozesutik abiatuta sortzen den ekintza bakoitzaren ebaluazioa egiten dute. Arazoa birdefinitzen da.
- b. Sistematizazioa. Kanpo eragileek gogoeta zientifiko akademiko bat egiten dute, prozesuan esperimendatutik abiatuta.

Prozesu honetan partaideek ekintzan eta ekintzari buruz lankidetzan aritzen ikasten dute, eta prozesuak diseinatzen dituzte, eragile guztiek modua izan dezaten bere kontura gogoeta egiteko, beste arazo bat identifikatu aurretik. Bereizketa horrek lagundu egingo du elkarrekiko bide berri bati ekiten.

Gobernantza eredu honen barnean halaber, aurreikusita dago **ekintzak eta helburuak jarraitzeko eta ebaluatzeko plana** diseinatzea eta garatzea, hain zuzen proposatutako helburu eta neurrien jarraipen, ebaluazio eta kontrol publikoa ahalbidetzearen; horretarako, lehen unetik beretik, adierazle eta mugarriak definituko dira, hain zuzen modu objektiboan baloratu ahal izatearren ezarritako helburuak lortzen ari diren eta hobekuntza edo aldaketarik sartu behar ote den, guztiak Planaren berrelikatze prozesutzat ulerturik.

Jarraipen eta ebaluazio plan hau modu jarraituan eramango da, Elkar-EKIN Planaren indarraldi osoan zehar, eta horrela jarraipen eta ebaluazio planak ematen dituen informazioen bidez birbideratu eta birdoitu ahal izango dira Elkar-EKIN Planaren helburuak.

Koordinazioa

Deustuko Unibertsitateak bideratuko du prozesu osoaren dinamizazioa. Koordinazioa, berriz, prozesuaren lehen fasean definitu beharko den **Talde Eragilearen** esku egongo litzateke; eta horretako kideak barne eta kanpo eragileak izango dira. **2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratze Planaren helburuak.**

5.4. 2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratze Planaren helburuak

1. HELBURUA	Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea
2. HELBURUA	Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako aukeren sormena sustatzea
3. HELBURUA	Kohesioko eta aktibazio inklusiboko proiektuak bultzatzea eta sustatzea
4. HELBURUA	Gizarte babeseko beste sistema batzuekin koordinazioa sendotzea, arlo sozio-sanitarioari arreta berezia emanez
5. HELBURUA	Herritarrak Gipuzkoako gizarteratzearen inguruan komunikatzea eta sentsibilizatzea

5.5. Jarduketa-ildoak eta ekintzak

2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratze Planaren helburuak 6 jarduketa-ildotan daude jasota.

1. HELBURUA, Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea	
JARDUERA ILDOAK	
1	Gizarteratzeari lotutako zerbitzuak eta prestazioak garatzea
2. HELBURUA, Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako aukeren sormena sustatzea	
JARDUERA ILDOAK	
2	Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako enplegurako eta gizarteratzeko aukerak sustatzea
3. HELBURUA, Kohesioko eta aktibazio inklusiboko proiektuak bultzatzea eta sustatzea	
JARDUERA ILDOAK	
3	Toki erakundeen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea gizarteratze prozesuen kudeaketan
4	Ikerketa eta berrikuntza sustatzea jardunbide egokiei dagokienez
4. HELBURUA, Gizarte babeseko beste sistema batzuekin koordinazioa sendotzea, arlo sozio-sanitarioari arreta berezia emanez	
JARDUERA ILDOAK	
5	Gizarte bazterketaren gaia lantzerakoan zeharkako prozesuak garatzea beste zerbitzu publiko batzuekin lankidetzan
5. HELBURUA, Herritarrak Gipuzkoako gizarteratzearen inguruan komunikatzea eta sentsibilizatzea	
JARDUERA ILDOAK	
6	Komunikazio Plan bat diseinatu eta garatzea, gizarteratzearen inguruko sentsibilizazio egiteko

Plan honen helburuak hedatzeko, urteko indarraldia izango duten ondoko ekintza-planak onartuko dira:

- 2016-2017 Elkar-EKIN Ekintza Plana, plan honekin batera aurkeztzen dena.
- 2017-2018 Elkar-EKIN Ekintza Plana
- 2018-2019 Elkar-EKIN Ekintza Plana
- 2019-2020 Elkar-EKIN Ekintza Plana

Urteko garapen horrek aukera emango du Plana etengabe berrikusteko eta egoki eta beharrezko irizten zaien helburu eta jarduketa berriak gehitzeko.

Aipatu ekintza plan horietan zehaztuko dira epe bakoitzean ekin beharreko neurriak, eta horien gauzatzea finantzatzeko beharrezko aurrekontu-zuzkiduraren zenbatespena egingo da.

Era berean, plan horietan aurreikuspen bat jasoko da, neurri onartuek ahulezia egoeran dauden pertsonengan izan dezaketen eraginari buruz.

1. HELBURUA, Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea	
JARDUERA ILDOAK ETA EKINTZAK	
1	Gizarteratzeari lotutako zerbitzuak eta prestazioak garatzea
1.1.	Gizarte bazterketaren balorazio eta orientazio zerbitzua abian jartzea
1.1.1	Gizarte bazterketaren balorazio zerbitzua irekitzea
1.1.2	Balorazioko Batzorde Teknikoa abian jartzea
1.1.3	Bigarren mailako gizarteratze zerbitzuaren erreferenteak sortzea eskualdeka
1.2	Tokiko entitateen, gizarte entitateen eta Gizarte Politikako Departamentuaren arteko lankidetzak aktiboak: koordinazioa eta partaidetza arreta sarean
1.2.1	Udaletako gizarte zerbitzuen partaidetza gizarte bazterketaren balorazioaren inguruan
1.2.2	Foru Aldundiak mekanismoak garatzea zerbitzuak emango dituzten elkarteen eraketa bultzatu eta sustatzeko, betiere baliabideak erabiltzerakoan gertutasun geografikoaren eta eraginkortasunaren printzipioa kontuan hartuta
1.3	Bazterketa egoeran dauden pertsonentzat egoitza baliabide berriak, eta eguneko nahiz gaueko arretakoak sortu eta antolatzea
1.3.1	Bazterketa egoeran egon eta buruko gaixotasuna duten pertsonen arreta premiei erantzuteko arreta baliabideak diseinatzea eta abian jartzea
1.3.2	Martxan jartzea esperientzia pilotu hau Donostiako Udalaren lankidetzarekin: Housing First proiektua
1.3.3	Bi administrazioen eskumenekoak diren zerbitzuak bateratuko dituzten balio anitzeko eguneko arreta zerbitzuak diseinatu eta proposatzea
1.3.4	Arreta sarea piskanaka zabaltzea
1.4	Zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretura egokitu, 2017tik aurrera eskubide unibertsala eta subjektiboa bermatzeko
1.4.1	Zorroari buruzko dekretuan adierazten diren gizarte zerbitzuen prestazioak zentroetan ezartzea
1.5	Gaur egun gizarte entitateekin sinatuta dauden hitzarmenak eta kontratuak pixkanaka egokitu, gizarte bazterketaren ondoriozko beharrei erantzuteko
1.6	Arreta egokitzea, intentsitate ertain eta handiko irizpideei eskakizun txiki, ertain edo handiarekin erantzunez

2. HELBURUA, Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako aukeren sormena sustatzea	
LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK	
2	Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako enplegurako eta gizarteratzeko aukerak sustatzea
2.1.	Gizarteratzen eta lanbideratzen laguntzeko programak indartu. Prestakuntzako eta enplegarritasuna sustatzeko ekintza positiboak
2.1.1	Laneko bitartekaritzako eta laguntzako zerbitzua/programa (lanbideratzeko kudeaketa aktiboa) zabaltzea eta indartzea bazterketa arriskuan edota egoeran dauden pertsonentzat
2.1.2	“Sendotu Aldiberean” proiektu berria abian jartzea
2.1.3	Ijitoentzako prestakuntza- eta gizarte eta lan arloko laguntza-programa indartzea
2.1.4	“Landuz” proiektu berria abian jartzea
2.1.5	Desgaitasuna eta/edo buruko gaixotasun larria duten pertsonentzako zerbitzu okupazionalako eskaintza zabaltzea eta dibertsifikatzea
2.1.6	Programen lurralde estaldura bermatzea eta udalekin koordinazioko eta deribazioko kanalak sortzea, baliabide horiek pertsonen gizarteratze ibilbideetan integratuz
2.1.7	Lankidetzak akordioak sinatzea beste eragile sozial batzuekin, lan inklusiboa sortu eta sustatzeko
2.2	Gizarteratzeko eta gizarte ekonomiako enpresen eta kooperatiben sorrera sustatu eta bultzatzea, bereziki, bazterketa arriskuan dauden eta kualifikazio gutxien duten pertsonentzat enplegu aukera berriak sortzen diren esparruetan

3. HELBURUA, Kohesioko eta aktibazio inklusiboko proiektuak bultzatzea eta sustatzea	
LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK	
3	Toki erakundeen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea gizarteratze prozesuen kudeaketan
3.1	Entitateekin lankidetzan, gizarteratze prozesuen kudeaketa garatzeko proiektuak bultzatzea
3.1.1	Boluntarioen eta hirugarren sektorearen zereginari buruzko hausnarketa egitea, gizarteratze prozesuetan duten arrakastaren ikuspegitik
3.1.2	Gizarte entitateen parte hartze aktiboa eta elkarlanekoa, gizarteratze prozesuen diseinuan
3.1.3	Laguntza sare naturala indartzea: gizarteratzea aktibatu aisan, kulturaren eta parte hartze zibiko eta komunitarioan oinarritutako tresnen bidez
3.1.4	Hirugarren sektorearekin batera, esku hartzearen eredu kontzeptuala ezartzea, zerbitzuak eta programak emateko baldintza teknikoak dagokienez
3.2	Banakako gizarteratze prozesuak indartzeko laguntza ekonomikoak diseinatzea eta onartzea, betiere Arreta Pertsonalizatuko Planaren barruan
3.2.1	Gizarteratzeko banakako prozesuei lotutako diru laguntza diseinatzea eta onartzea
4	Ikerketa eta berrikuntza sustatzea jardunbide egokiei dagokienez
4.1	Prestakuntzako, ikerketako eta praktika onen kudeaketako programak sustatzea, gizarte bazterketaren kontzeptualizazioari eta arazo horri ekiteari dagokienez
4.2	Epe ertain eta luzeko erronkei aurrea hartzen lagunduko duten gizarte bazterketari buruzko ikerketa proiektuak eta mintegiak egin eta garatzea


4. HELBURUA Gizarte babeseke beste sistema batzuekin koordinazioa sendotzea, arlo sozio-sanitarioari arreta berezia emanez		
LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK		
5	Gizarte bazterketaren gaia lantzerakoan zeharkako prozesuak garatzea beste zerbitzu publiko batzuekin lankidetzan	
5.1	Lanbide. Gizarte eta lan arloa	
5.1.1	Lankidetzaren protokoloa ezartzea	
5.2	Haurrak eta Nerabeak	
5.2.1	Babesgabeziari eta bazterketari aurre egiteko prebentzio programak	
5.2.2	Emantzipazio programak garatzea	
5.3	Desgaitasuna eta Mendekotasuna	
5.3.1	Babesgabeziako eta gizarte bazterketako egoerak artatu eta prebenitzea	
5.4	Gizarte eta osasun arloa	
5.4.1	Gizarte bazterketako egoeran egon eta buru patologia duten pertsonen zuzendutako programak	
5.4.2	Baliabide espezializatuagoak kronifikazio egoerarako	
5.5	Ogasuna	
5.5.1	Gizarteratzeko esparruan zerga-sistema sustatzera bideratutako neurriak aztertzea	
5.5.2	Diseinatutako neurriak aplikatzea, hala dagokionean	
5.6	Genero indarkeriaren arreta	
5.6.1	Babesgabezia egoeran dauden genero indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta zerbitzuak egokitu eta hobetzea	
5.7	Berdintasuna	
5.7.1	Berdintasun Zuzendaritzarekin zeharkako programak garatzea	
5.8	Etxebizitza	
5.8.1	Bazterketa egoeran dauden pertsonen etxebizitza premiei erantzuteko lankidetzak garatzea	
5.9	Kultura- aniztasun	
5.9.1	Zeharkako politikak garatzea, batez ere, Giza Eskubideen eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendaritzetatik	
5.9.2	Udalerrietan harrera programak garatzea iristen diren pertsonentzat	
5.10	Hezkuntza	
5.10.1	Lankidetzaren protokoloa ezartzea	
5.11	Hizkuntz Berdintasuna	
5.11.1	Euskara sustatzea gizarteratze bidean laguntzeko	

5. HELBURUA Herritarrak Gipuzkoako gizarteratzearen inguruan komunikatzea eta sentsibilizatzea

LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

6 Komunikazio plan bat diseinatzea eta garatzea gizarteratze arloko alderdien inguruan herritarrak sentsibilizatzeko

6.1 Komunikazio plan bat diseinatzea eta abian jartzea



*..sortuz ta sortuz gure aukera atsedetik
hartu gabe, lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera ...*

(Xabier Lete)



elkar-**ekn**

elkar-EKIN

Gipuzkoako Gizarteratzea
Inclusión Social Gipuzkoa

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Gizarte Politikako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales

